

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Marije Ugarte Garitaonandia

*Oñati,
Gipuzkoa
(1956)*

Aurkibidea



Biografia



Murgia auzoko Azkarreta baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama San Prudentziokoa. 8 senide ziren (5mutil eta 3 neska), baina mutiletako bat umetan hil zen. Marije laugarrena da. Berezaoko auzo-eskolan ibili zen umetan, eta herri eskolan gero. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Beatriz](#) ahizparekin eta auzoko [Karmen Inza](#)rekin batera. Etxean jaso zuen hika. Ane alabari hika egiteko hautua egin zuen, duela urte gutxi. Laudion bizi da.

Zintak

ONA-254

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-14
- **Iraupena:** 111 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

ONA-255

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-14
- **Iraupena:** 25 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Hika eta idatzi gabeko arauak

- **Erref:** ONA-254/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:19:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Idatzi gabeko arauak daude hikaren erabileran. Marijeren iritziz, txikitan

zuka egiten zitzaaien umeei, baina behin 6 urteak bete zituztenean (Jaunartzea egitean), hikara pasaten ziren gurasoak. Beatrizek haren alabari ez dio hika transmititu. Oñatiko hitanoa.</p>

2. Eskolek asko erdaldundu zituzten gazteak

- **Erref:** ONA-254/010
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:21:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Kolegioek eragin handia izan zuten mutilengan, eta asko erdaldundu zituen. Marije eta Beatrizek auzo -eskolan ikasi zuten, eta eskolatik atera bezain pronto, euskaraz eta hika egiten zuten. Maistrak zigortu egiten zituen euskaraz egiteagatik. Oñatiko hitanoa.</p>

3. Kalean bizi ziren auzotarrak lagun

- **Erref:** ONA-254/011
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:21:02. **Bukatu:** 00:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Auzotik kalera jaitsi zen familia bizitzera. Bertan, ordea, auzotik jaitsitako gazte guztiak bildu eta lagun-taldea egin zuten. Hika hitz egiten zuten haien artean. Ahizpa moja joan zen eta moja nagusiari hika egitetik berorika egitera pasa behar izan zuen. Oñatiko hitanoa.</p>

4. Mutilarteko hika biziago

- **Erref:** ONA-254/013
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:24:46. **Bukatu:** 00:26:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Familian eta etxean hika egiten dute, baita euren adineko gertuko jendearekin ere. Mutilei samurrago egiten die hika Marijek. Mutilen arteko hika biziago dagoela uste du. Oñatiko hitanoa.</p>

5. Kale-giroan hika gaizki ikusirik

- **Erref:** ONA-254/014
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:26:33. **Bukatu:** 00:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Eskolan auzoko umeek egiten zuten hika, eta, bartzere, mutilen artean erabiltzen zen. Hikak ez zeukan inongo prestigiorik, eta ez zegoen ondo ikusirik. Oñatiko hitanoa.</p>

6. Laudioko euskararen egoera

- **Erref:** ONA-254/016
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:30:12. **Bukatu:** 00:32:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Marijek, lana dela eta, Laudioko egoera soziolinguistikoa ongi ezagutzen du. Oñatin kasu batzuk dauden bezalaxe, Laudion bada belaunaldi bat euskara transmititu ez zaiona, gurasoek erdararik jakin ez, eta seme-alabek dena erdaraz egiten dutena. Hizkuntza ohiturak aldatzea oso zaila da. Oñatiko hitanoa.

7. Hika norekin erabili izatea da gakoa

- **Erref:** ONA-254/017
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:32:51. **Bukatu:** 00:34:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Beatrizek ez dio alabari hika transmititu, gurasoei egiterik ez baitie, eta haren lagunen artean hizarik ez dute erabiltzen. Hika jakitea kontu bat da, eta hika norekin hitz egiten edukitzea beste bat. Oñatiko hitanoa.</p>

8. "Niri egin hika neskaren moduan!"

- **Erref:** ONA-254/018
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:34:54. **Bukatu:** 00:37:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Nesken arteko hika gehiago galdu da mutilen artekoa baino. Ondorioz, mutilena bakarrik dakien jendeak, hori bera erabiltzen du bai neska bai mutilekin. Neskek, ordea, normalean bi formak jakiten dituzte. Oñatiko hitanoa.</p>

9. Zergatik galdu da gehiago nesken arteko hika?

- **Erref:** ONA-254/019
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:37:19. **Bukatu:** 00:40:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Emakumeak beste fase batean egon omen dira beti, zintzoagoak, finagoak... izan behar. Hika ez zen dotorea gizartearentzat, eta hori dela eta, emakumeak hika egiteari utzi ziotela uste du Marijek. Beatrizek denbora askoan ez zuen norekin hika egin. Oñatiko hitanoa.</p>

10. Ezin hizarik egin

- **Erref:** ONA-254/020
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:40:08. **Bukatu:** 00:41:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Beatrizek normalean zaharragoekin egin du hika, haren adineko inork ez baitzuen hika hitz egiten. Oñatiko hitanoa.</p>

11. Gizonen eta emakumeen sozializazioa, desberdina?

- **Erref:** ONA-254/022
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:43:05. **Bukatu:** 00:45:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika oso loturik dago sozializazioarekin. Emakumeen eta gizonen sozializazioa, ordea, oso desberdina zen, eta horrek hikaren erabileran,

galeran eta transmisio faltan eragina izan dezake. Gainera, Mari Karmenen garaian, neskak eta mutilak ez ziren denak elkarrekin egoten, baizik eta bakoitza bere aldetik. Auzoz auzo, ordea, asko aldatzen da egoera, izan ere, Araotzen neska-mutilak batera egoten ziren beti. Oñatiko hitanoa.</p>

12. Desberdina zen kaletarra edo baserritarra izatea

- **Erref:** ONA-254/023
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:45:34. **Bukatu:** 00:48:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Mari Karmenen garaian, emakumeak ez ziren bakarrik tabernara joaten, kategoria baxukoa balitz bezala ikusten zen hori gizartean. Lagun guztiak kaletarrak izateak ere euskararen erabileran (eta hikarenean) eragiten zuen. Oñatiko hitanoa.</p>

13. Dena gaztelaniaz ikastearen ondorioak

- **Erref:** ONA-254/024
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:48:29. **Bukatu:** 00:52:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

<p>Biderkaketak, zenbakiak... gaztelaniaz ikasten zituzten eskolan, eta gaur egun euskaratzea asko kostatzen zaie. Marijeren aitak Arabara joan behar izan zuen gaztelania ikastera. Adela izeneko maistra elebiduna zen, eta bi hizkuntzak jakitea ona zela transmititu zien. Oñatiko hitanoa.</p>

14. Ahoz euskaraz, idatziz gaztelaniaz

- **Erref:** ONA-254/026
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:55:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

<p>Gogoan du Marijek anaia soldadutzara gaztelaniaz jakin gabe joan, eta

18. Hika egitea errebelde izatea al da?

- **Erref:** ONA-254/033
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:04:25. **Bukatu:** 01:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika egitea errebelde izateko beste modu bat da Mari Karmen eta Marijerentzat. Emakumeei mutilen hika egitea. Hurbiltasuna eta konfiantza ematen du hikak. Oñatiko hitanoa.</p>

19. Abadearen aitari ere berorika

- **Erref:** ONA-254/034
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:07:58. **Bukatu:** 01:09:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Zuka errespetu moduan, hika konfiantza bat dagoenean erabiltzen da. Berorika erabiltzen zen garaian, ordea, hika multzo berean zeudenei egiten zitzairen, gizarteko talde berekoei. Bakoitzarekin zein tratamendu erabili esan beharrik ez zen. Oñatiko hitanoa.</p>

20. Bikotearekin normalean zuka

- **Erref:** ONA-254/036
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:10:04. **Bukatu:** 01:13:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Araotzen neskak eta mutilak denak batera egoten ziren. Lagun-taldetik, bikoteak sortu eta elkarri hika egiten zioten. Marijerentzat, ordea, bikotean zuka egitea iruditzen zaio naturalena. Oñatiko hitanoa.</p>

21. Norberarekin hitz egiteko, mutilen hika

- **Erref:** ONA-254/038
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:16:21. **Bukatu:** 01:18:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Mari Karmenek bere buruarekin emakumeen hika darabil. Marijek, ordea, bai hika eta bai zuka, hikaren kasuan, mutilena. Ametsetan, egoera larritan, hika, besteala zuka. Mari Karmenek erdaraz hitz egiten du ametsetan. Oñatiko hitanoa.</p>

22. Umeei euskaraz egitea da naturala

- **Erref:** ONA-254/040
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:21:35. **Bukatu:** 01:22:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

<p>Mari Karmenen amaginarreba eta ataginarreba burgoskoak dira, baina umei euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuen Mari Karmenek haiekin, ez baitzitzaion umei erdaraz egitea ateratzen. Oñatiko hitanoa.</p>

23. Euskaraz egiteagatik errieta

- **Erref:** ONA-254/041
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:22:54. **Bukatu:** 01:24:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

<p>Euskaraz egitea gaizki ikusirik zegoen garaian, justifikaturik zegoen oso euskaraz egiteagatik jendea zigortzea edo errieta egitea. Hala ere, Marijek seme-alabei euskaraz egitea erabaki zuen, senarra erdalduna bazuen ere. Oñatiko hitanoa.</p>

24. Laudion bizitza euskaraz egiteko erabakia

- **Erref:** ONA-254/043
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 01:25:05. **Bukatu:** 01:28:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

<p>Hizkuntza ohitural aldatzea asko kostatzen da. Bizitza osoan norbaitekin

gaztelaniaz egitera ohituta, oso zaila da euskarara pasatzea. Marijek Laudion erosketak euskaraz egitea erabaki zuen. Oñatiko hitanoa.</p>

25. Animaliei eta landareei hika

- **Erref:** ONA-254/045
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:28:35. **Bukatu:** 01:30:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Animaliei normalean hika egin izan diete, batez ere txakurrari. Marijek behiei zuka. Mari Karmenen amak loreei hika egiten zien, mutilen forman. Oñatiko hitanoa.</p>

26. Jaungoikoari hika?

- **Erref:** ONA-254/047
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:30:47. **Bukatu:** 01:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Leizagarrak Jaungoikoari hika egiten zion. Marijeren iritziz intimitate kontua dago tartean, etxean hika (konfiantzazko eremuan) eta elizan zuka edo berorika egiten zitzaion. Mari Karmenen amandreak ere hika egiten zion Jaungoikoari. Oñatiko hitanoa.</p>

27. Etxeko jauna hildakoan, lehen abisua haren erleei

- **Erref:** ONA-254/049
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:33:38. **Bukatu:** 01:36:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Etxeko jaunak zaintzen zituen baserrietan erleak. Jauna hildakoan, erleei ematen zitzaien lehen abisua, zerurako bidean lagun zezaten. Erleei zuka egiten zitzaien. Oñatiko hitanoa.</p>

28. Erleen mundua

- **Erref:** ONA-254/050
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:36:28. **Bukatu:** 01:38:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Prestigio handikoa zen erleen mundua. Harrigarria egiten zaio Marijeri orain erleak salerostea, izan ere, garai batean harrapatu, eta behin erlauntzak marka izanda, inork ez zuen beste inoren erlerik jasotzen. Oñatiko hitanoa.</p>

29. Hikak zer ematen dizue?

- **Erref:** ONA-254/052
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:39:29. **Bukatu:** 01:41:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hurbiltasuna, konfiantza, etxeko izaera. Hika galduz gero tristura handia emango lieke, 'espezie' bat galtzea moduan. Hizkuntzaren zati garrantzizko bat galtzea litzateke. Oñatiko hitanoa.</p>

30. Hikaren berpiztea emakumeen ikuspegitik

- **Erref:** ONA-254/054
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:43:24. **Bukatu:** 01:45:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Emakumeen ikuspegitik bultzatu beharko litzateke hikaren berpiztea, mutilen forma eta neskena ikasiz.</p>

31. Baserritarren euskara aberatsagoa

- **Erref:** ONA-254/056
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:48:40. **Bukatu:** 01:51:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

<p>Mari Karmenen iritziz baserritarren euskara aberatsagoa da eta izan da kaletarra baina. Oñatiko hitanoa.</p>

32. Nesken eta mutilen arteko lan banaketa baserrian

- **Erref:** ONA-255/002
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:00:03. **Bukatu:** 00:03:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Nesken eta mutilen lanak baserrian. Marijek, lau anaia zituenez, kanpoko lan gutxi egin behar izan zuen. Eurenean neskek etxe barruko lanak egiten zituzten. Anaiak soldadu joan zirenean bakarrik tokatu ei zitzaion sardea hartzea. Mari Karmenek itulan edo ortuan lan egiten zuen. Ortuko lanak askotan emakumeen ardura izaten ziren. Bestelako lanak ere egin behar izaten zituen, anaiak gazteagoak zituen eta. Garia ereiteari noiz utzi zioten.

33. Bekatua emakumeekin lotzen zen

- **Erref:** ONA-255/003
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:03:47. **Bukatu:** 00:06:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Elizak indar handia zuen sasoi batean. On Migel apaiz emakumezalearen inguruko kontuak. Haurdun geratzen ziren emakume ezkongabeak aldarera igoarazten zituzten meza nagusitan, herri osoaren aurrean lotsagarri uzteko. Bekatuak emakumearekin lotzen ziren beti eta ondorioak ere emakumeek jasaten zituzten.

34. Kaltea eragin arren, elizak indar handia

- **Erref:** ONA-255/004
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:06:39. **Bukatu:** 00:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Elizak kalte handia egin zuen Marijeren ustez. Franco paliopean ibiltzea, jainkoa bakarrik ibil zitekeen lekuan ibiltzea, harrigarria egiten zitzaion garai bateko ezkerreko jendeari. Hori ikusi arren eta herrian nahi zuena egiten zuen abade emakumezale bat egon arren, elizak bete egiten ziren. Fenomeno berezia da sinesmenarena.

35. Emakumeek, ezkondukoan, lana utzi?

- **Erref:** ONA-255/005
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Garai bateko emakumeek lana uzten zuten ezkontzen zirenean. Gainera, dotea ematen zitzaien. Gerora, emakumeek lanean jarraitzeko aukera izan dute, baina Marijek dio ez ote zitzaien lana bikoiztu orduan, etxeko zereginak egiten emakumeak jarraitu zuelako.</p>

36. Gizonezkoak umeak zaintzen hasi zireneko kontuak

- **Erref:** ONA-255/006
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:12:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeek askotan ez dutela zaintza lana besteen esku utzi izan dio Marijek, autokritika eginez. Gizonezkoak umeen zaintzan hasi ziren garaietako kontuak. Mari Karmenek kontatzen du ume-zain zebilen aitona bati "zer, oilarra txita zain?" esan ziotela. Zaintza gizonen esku uzten zuten emakumeak kritikatu egiten ziren.

37. Gizonezkoak etxeko lanetan edo umeen zaintzan

- **Erref:** ONA-255/007
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:12:49. **Bukatu:** 00:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Garai bateko gizonak ez zeuden ohituta etxeko lanak egiten. Arrebak baldin bazituzten, haiek egiten zituzten etxeko lanak; esaterako, anaien oinetakoak garbitzea. Pixkanaka aldatzen joan da, baina oraindik ere bide luzea dagoela dio Marijek. Gizonezko batzuk orain dela gutxi hasi dira etxeko lanak edo umeen zaintza osoki euren gain hartzen.</p>

38. Gizonezkoek lehentasuna saltokietan

- **Erref:** ONA-255/008
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:15:48. **Bukatu:** 00:17:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Erosketak egiterakoan, emakumeek ekonomiari gehiago begiratzen diotela dio Mari Karmenek. Garai batean, saltokietan ilaran zain zeudenean, gizezkoiei lehentasuna ematen zitzaiela kontatzen dute.

39. Etxeko lanen banaketa naturaltasunez egin beharko litzateke

- **Erref:** ONA-255/009
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:17:24. **Bukatu:** 00:20:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Marijeren iritziz azken urteetan eman dira gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko lehen urratsak. Askotan lanak erdibana egin behar direla esaten da, baina banaketa hori naturaltasunez egin beharko litzateke. Normaltasun hori lortzeko oraindik pare bat belaunaldi pasa beharko direla uste du.</p>

40. Garai bateko "puxetia" eta lehenengo garbigailuak

- **Erref:** ONA-255/011
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:20:18. **Bukatu:** 00:24:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Garbigailua asmakizun onenetakoa izan dela diote, aurretik emakumezkoek eskuz garbitu behar izaten zituzten arropak eta. Garai bateko mekanikarien arropak garbitzea nolako lan nekagarria izaten zen. Etxera lehenengo garbigailua eramane zutenean, Marijeren amak ez zuen nahi izarak han sartzerik, izan ere "puxetia" zeremonia antzeko bat izan zen amarentzat. Izaren garbiketa prozesu luzea izaten zen; gero, ilargi betea zegoenean, zelaian zabaltzen ziren, xaboia emanda, eta biharamunean urarekin astindu.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com